



# Beñat Urainek esprinean irabazi du Anoetako txirrindulari proba

**ISTRIPUA** ▶ Istripu larri bat izan zen Alegian eta lasterketak orduerdiko atzerapena izan zuen ▶ 6



Laxy taldeko Beñat Urain txirrindulari gaztea Anoetako helmugan iristen. IÑIGO TERRADILLOS



IÑIGO TERRADILLOS

## Giro ona izan da egun osoan herriko jaietan

**TXARAMA** ▶ Jesus Gorostidik irabazi zuen patata tortila lehiaketa; denetatik eta denentzat izan zen atzoko egitarauan ▶ 7



**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- ▶ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- ▶ 2001ean, Eusko Jaurlaritzako Zilarrezko "Q" saria
- ▶ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

### Goi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemaren Administrazioa

**IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:**  
EKAINAREN 1etik 8ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64  
Fax: 943 65 18 56  
[idezkaritza@tolosaldea.com](mailto:idezkaritza@tolosaldea.com)  
[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)  
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



### TOLOSALDEA ▶

Lanerako  
prestatzen  
LH  
Institutuan

Zikloak eta helduen  
formakuntza ditu ▶ 5



**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa  
Kanposantuko Lanak

- |                          |                         |                          |
|--------------------------|-------------------------|--------------------------|
| - Ehorzketak             | - Hilerrien proiektuak  | - Panteoiak              |
| - Lurpetik atera         | - Hilerrien eraldaketa  | - Hilobiak               |
| - Gerakinen lekualdatzea | - Eraikuntza ezberdinak | - Estelak                |
| - Gerakinen errausketa   | - Hilobi apaingintza    | - Fotozermikak           |
| - Errausketa zerbitzua   | - Hilariarik            | - Estanpaziozko teknikak |

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa      Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria  
Tel/Faxa: 943 67 01 14      Tel/Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552      Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

## IRUDIETAN ▶

Ikusmin handia  
Euskal  
Bizikletan

J. SAIZAR

Euskal Bizikletak ikusmin handia piztu zuen ostegunean eta ostiralean Tolosaldean. Jende ugari bildu zen errepide bazterretan eta Tolosako helmugan. Eladio Jimenez salamancarrak erraz irabazi zuen eta lider jarri zen. Gaur Arraten irabazle izateko aukera handiak ditu.



Jesusen Alaben kanpandorretik begira. L. MONTES



Txirrindulariak Larraitzeko mendatera iristen. LEIRE MONTES

## UZTURRETIK ▶ RAMON OLASAGASTI

## Bi begi



**G**ertu izango zituen 80 urte. Aurpegi belztua, zimurtua, zaildua. Bastoia eskuetan, zigarroa ahoan, kapela buruan, patxada ederrean zebilen pasieran, Santa Cruz de La Palma hiriburua kanpoaldean. «Bere bizian ez zen hemendik aterako» pentsatu nuen neure artean. Beharrak eraginda, aukera eta modurik ez sasoiako zenean, eta orain, aukera duenean, inorako joateko beharrik ez, seguru asko. Itsasoak mugatuko zuen bere mundua, uhartearen neurri ttipietara. Urrunean, egun garbietan, begizatuko zituen Tenerife eta Teideren

irudi ikusgarria, baina han geratuko ziren. Itsasoaz bestalde. Bere pauso eta bastoiaren soseguan zihoan haren bizimodua.

Egun berean, Donostiako bikote bat ezagutu genuen. Adinekoak ziren eurak ere, baina Santa Cruzeko agure haren aldean, bestelakoa zen euren erretiroa. Tenerifetik zetozen egun hartan, egun bateko eskurtsioa hartuta La Palmako toki politenak ezagutzera. «Hamabi bat urte daramatzagu Tenerifera joaten, eta beti izan dugu desioa La Palma iralarako irteeratzu hau egiteko. Uhartearan iparraldetik gatoz, eta orain autobusean sartu eta hegoaldea ezagutzera goaz». Haien munduak zerumuga zabalagoak zituen: itsasontzi, hegazkin eta autobusaren ordutegi eta ibilera haien bizimoduak.

Gure etxean ere, urrutira joan gabe, belaunaldi eta bizimoduaren araberrakak izan dira joan-etorriak. Aitona Ameriketa ezagutzera iritsi zen, behararren beharrez. Gurasoen unibertsoak Zaragozan eta (halabeharrenean eraginez) Bartzelonan du muga. Gu urrunxeago iritsi gara, eta ibilian-ibilian, abiadura bizi samarra hartu du gure bizimoduak, baita egiten ditugun oporraldian ere. Egutegia motz geratzen da ezagutu nahiko genituzkeen leku guztietara joateko; bi begi baino gehiago nahiko genituzke mundu mugagabe hau ikusteko. Horregatik, batzuetan, gogoia ematen du Santa Cruzeko agure haien begi sosegatuekin etxe atarian eseri, eta arratsalde osoa Teideri begira egoteko. Zoritxarrez edo zorionez, batzuetan bakarrik gertatzen zaigu hori.

## IRITZIA ▶ HELENI ZABALETA (LEITZAKO ERLETA ESKOLAKO ZUZENDARIA)

## Leitzaldeko HITZaren urtebetea ospatu dugu

**D**agoeneko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK urte bat bete du gure artean. Hasieran oso ongi ez banekien ere zer eta nola suertatuko zen esperientzi berri hau, ilusioarekin hartu nuen asmoa. Ilusio egin zidan egunero egunkaritzo hau gure eskuetan edukitzeko aukerak.

Lehenbizi euskara bultzatzeko eta normaltzeko erronka guztiak bultzatu behar ditugula uste dudalako. Gure hizkuntzak, Nafarroan ere, bere lekua izan behar duelako baita komunikabideetan ere. Komunikabidea bai, baino oso bertakoa, guretzat propioa egin. Aukera politte!!

Ondoren, Leitza eta Aresoko herritarrok betidanik Tolosaldearekin izan dugun harremana mantentzea oso interesgarria eta aberatsa iruditzen zaidalako. Leitzarango autobia egin zenetik pixka

bat urrunduta ibili gara eta badago elkarri zer eman. Maiz suertatzen da Tolosan edo inguruan egiten diren antzerki, festa, erakusketa... interesgarriak izatea eta HITZA dagoenetik guk horren berri eduki eta joateko aukera dugu. Baita alderantziz, noski. Frankotan ikusi baitut Leitza antolatzen diren ekintzetan Tolosaldeko jendea. Alajaina!!

Beste herritan zer egiten ari den irra-

## HARREMANA

«Leitza eta Aresoko herritarrok betidanik Tolosaldearekin izan dugun harremana mantentzea oso interesgarria eta aberasgarria iruditzen zait»

kurtzeak poza ematen du. Gure gizartea gero eta gogo gabekoa, motela dela uste izan arren, egunero, baita herri txikienean ere, zenbat ekitaldi antolatzen den irakurtzeak (kultura, kirola, festak...) poza eta ilusioa ematen du. Ideiak ateratzeko ere balio du eta!!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK duen beste gauza ona euskara errexa erabiltzen duela da, edozeinek ulertzeko modukoa. Gure hizkuntzan irakurtzeko ohitura ez duenak ere ongi ulertuko duena.

Arrazoiak ilusionatuta egoteko bazeudela eta oraindik ere badaudela sinistuta nago. HITZAREN urtebetetzea ospatu nahi badugu eta berari opari bat egin, gure burua edo edozein lagunena estimatu eta oparia egin nahi izanez gero ere, harpidetza egitera besterik ez dugu. Horretara animatzen zaituzte!!

TOLOSALDEKOHITZA.  
INFO ▶Zer iritzi duzu  
Leitzarango  
autobiaz?

Autobidea egin egin ziguten eta ez iskanbilla gutxierekin. Gehienak ados zeuden edo ez jakiteko garaian niri ez zidan inork galdetu eta ez nuen erantzuterik izan... Ze erraz erabiltzen dugun gehiengoaren izenean amen. Nire bizimoduagatik, Iruñean egiten baitut lan, asko ibiltzen naiz atzera eta aurrera, eta egia esan behar badizuet sueltoago joaten naiz Azpirotzetik bestaldetik baino. Aurtengo negu gogor honetan zer esanik ez, Azpirotzetik barrena ibili naiz elurretan gelditu nahi ez banuen. Finean hasierako autobide hark moldaketak izan zituen —zorionez askori ahaztu egiten bazaie ere— eta gerora egin zen hau arazoz beterik dagoen autobidea da. Ziurtasuna diozue, ba al daki norbaitek zenbat istripu izaten den autobide honetan? Nik ez, datuok ere ez baitira publiko egiten —zergatik ote?—, baina ikusi, nik mardoska bat ikusi izan ditut.

AITZIBER ▶ ALDABA TXIKI

Azpirotzetik? Bai noski, gaur egun ibil gintezke bertatik *Lasai* asko, trafikoaren gehiengo autobiatik ibiltzen delako. Baina hau gabe pentsa zer nolako iskanbilak sortuko liriteken karretera horretan. Berdineren helden gara, batzuentzat hoberean guztiari ezekoa ematea da. Ez naiz aditua kontu hauetan, baina gai naiz zerbaitek mesede egin duen ala ez bereizteko eta guri behintzat asko erraztu dizkigu gure joan etorriak.

IBARTARA ▶ IBARRA



Irabazlea prentsa atentitzen. J.SAIZAR



Ostiralean Tolosa-Oroko santutegia etaparen irteera Usabal kiroldegitik. I.ETXEBESTE



Txinpartak eta Gure Txokoak ere saria eman zuten. I.E.

ESANA ▶



EDURNE PASABAN  
MENDIZALEA

«Zortzimilakoetan pentsatzen jarraitzen dut, baina bizitzan beste gauza batzuk ere egin behar dira»

DATUA ▶

1.000

saio. Txolarre Irratiko Tolosaldeko ahotsa saioak bete ditu aste honetan, eskualdeko informazioa zabaltzen.

PASADIZOA ▶

**Ainhoa Arteta eta Jesus Garmendia.** Soprano tolosarra eta zaldun orendaindarra Espainiako prentsa *arrosan* agertu dira aste honetan. Garmendiak Espainiako Txapelketa eta Presidente Kopa irabazi du Madrilen eta Arteta bere alaba Sararekin joan zen mutil laguna ikustera. «Zoriontsu» daudela eta sopranoa «ilusionatuta» dirudielako diote aldizkari eta egunkariek.

IÑIGO MARTIN ▶ TOLOSANDBLUES-EN ANTOLATZAILEA

## «Jendeak beltzen aiene doinuekin lotzen du bluesa, baina asko bilakatu da»

**Joxemi Saizar** ▶ Musikazalea eta —batez ere— blueszalea dugu Iñigo Martin tolosarra. Euskadi Irratiako *Kostaldean blues* saioan ostegunero musika aukeratzeko eta komentatzeko aritzen da. Lehen aldiz antolatu duen Tolosandblues jaialdiaren *zirikatzaila* izan da. Gaur 21:00etan Blues Blaster's taldeak emango dio amaiera plaza Berrian.

**Nola sortu zen ideia?**

Blues entzutera beti Getxora, Gasteiza eta beste lekuetara joaten nintzen —eta jarraituko dut joaten— eta pentsatu nuen: 'Zergatik ez Tolosan?' Kultur teknikariari proposatu eta horrela sortu zen.

**Nola osatu duzue kartela?**

Lau blues talde eta bi jazz talde aukeratu ditugu, Espainian onenetakoak.

**Blueszalea zara. Aurkez ezazu blues talde bakoitza: Big Mama+Joan Pau Cumellas.**

Blues akustikoa edo country blues da. Autore abestia deitzen diote. Iaz izan zen Fronton kafetegian eta goi mailako emanaldia izan zen. Abeslariari ebakuntza egin diote eta ahotsa hobeto dauka orain. Gasteak dira, baina oso onak. Amerikarrak balira...

**De 2 en Blues Band.**

Puntako euskal taldea. Getxon ikusi nituen. Abeslariaren ahotsa aipatu behar da bereziki. Beltzek bezala abesten du. *Showman* da gainera.

**Blues blaster's.**

Espainian onenetakoak. Disko bakarra dute, baina oso ona eta horrek bultzatu ninduen Tolosara ekartzera. Chicagoko bluesa egiten dute, funky blues, blues rock, klasikoen



J.SAIZAR

Nik uste dut baietz. Egun hauetan ikusiko dugu. Jendeak beltzen garai bateko aiene doinuekin, kotoi sororetan, lotzen du bluesa, baina musika moeta guztiak bezala asko bilakatu egin da eta zuzeneko emanaldietan aurreiritzi hori aldatu egiten du.

**Jaialdia urtero antolatzeko asmoa al duzue?**

Bai. Aurten umil hasi gara, baina hasi behintzat. Neurria hartu eta aurrera jarraitzeko asmotan. Getxoko jaialdiari ezin-go diogu itzalik egin, baina...

**Zein erlazio dute bluesak eta jazzak?**

Bluesa jazz bano zaharragoa da, makalagoa nire gusturako, baina biak nahastuta ageri dira askotan.

**Jaialdietan adibidez.**

Gasteizko jazzaldian luxuzko blues gau bat sartzen dute. Donostiakoa berriz turistentzat antolatua dirudi. Diru asko kostatu eta entzuleak erakarriko dituzten musikariak ekartzen dituzte: Van Morrison, Joe Cocker, Gilberto Gil... Ez da benetako jazz.

moldaketak, gai propioak... Bateriajoleak Berkeleyko unibertsitatean ikasteko sarrera frogara gainditu zuen eta hori oso musikari gutxi egin dezakete. Sevillako taldea da, baina bateriazalea kataluniarra da eta abeslaria australiarra. Inglesez abesten dute.

**The Croppers.**

Juanra Etxaburua tolosarrak bateria jotzen zuen hor, baina duela gutxi utzi egin du. Oso onak dira eta jendea gustura utzi zuten atzo [ostirala].

**Honetarako affiziorik ba al da Tolosaldean?**

**hilberriak** ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



**Ina**

VII. URTEURRENA



Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia, burruka hortan bizi da eta, hori du bere egia. Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatzeko hortan ezin gelditu, jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu lege berriak noizbait erditu, hortan jokatuz bizia...

Gaur 9:00etan mendi irteera Axurdariara; 13:00etan omenaldia monolitoaren aurrean; eta 14:30ean bazkaria elkartean

Lizartzako ezker abertzalea

LIZARTZA, 2005eko ekainaren 5a

KEPA CABALLERO ▶ PATINATZAILEA

# «Europar, nire mailako patinatzaileak profesionalak dira»

Orain hilabete Espainiako Txapelketa irabazi zuen; bi aste ondoren, Munduko Kopan 5. gelditu da

## GARAZI AZKUE

Patinajean punta-puntan dabil Kepa Caballero tolosarra. Maiatzaren 8an Espainiako Txapelketa irabazi zuen Gasteizen; eta pasa den astean, Munduko Kopako proba batean bosgarren postuan sartu zen helmugara. Hirzarekin mintzatu da aste honetan, baina izango dugu aurrerantzean bere izena gehiagotan entzuteko aukera.

### Nola sartu zinen patinajearen mundu honetan?

13 urterekin hasi nintzen patinatzen, Tolosako Laskorain taldean. Aitarekin hasi nintzen patinen gainean jartzen, bera txikitari ibilita baitzegoen eta afizioa transmititu zidan. Laskorain taldean hasi nintzen eta Berastegin klaseak ematen nituen. Hala ere, orain 4 urte, Tolosako helduenen taldea desagertu egin zen eta irtenbide bakarra beste talde batera joatea zen; talde euskalduna nahi nuen, Gasteizera jo nuen.

### Zer behar da patinajea praktikatzeko?

Lehenik eta behin patinak. Garrantzitsua da gogoak edukitzea eta baita instalazio egokiak ere, hemen euri asko egiten baitu. Alde horretatik zortea izan dugu guk, Laskoraingo frontoian entrenatzeko aukera izan dugu eta. Bartzelonan entrenatzen dut orain eta

han eguraldi hobea egiten duenez... Iruñean ere badaude pare bat pista estali. Eta noski, maila gorenean asko entrenatu behar da, bi edo hiru ordu egunean.

### Euskal Herrian jendea jartzen al da patinen gainean?

Kalean badirudi geroz eta jende gehiagok patinatzen duela. Konpetizio mailan, ordea, jai-tsiera egon da. Iruñean dauken instalazioekin beherakada egon da; eta hemen, instalazio gabe, desagertzen ari da. Estalitako pista beharko lirake Euskal Herriko alde honetan.

### Eta zer gertatzen da munduko gainontzeko lekuetan?

Europako herrialde askotan, Frantzia, Italia, Suitza edo Alemania, nire mailako patinatzaileak profesionalak dira, horretaz bizi dira. Beraiek duten kezka bakarra noiz eta nola entrenatuko duten da. Guk denbora nondik atera ibili behar dugu. Nik, dena den, zortea dut, suhiltzailea naiz eta izaten dut entrenatzeko aukera.

### Munduko zein herrialdeetan dago zabalduen patinajea?

AEB-etan izugarria da. Kolonbian ere bigarren kirola da, futbolaren atzetik. Zelanda Berria ere berezia da, azken urteetan lau munduko txapeldun atera dira handik. Hemendik hiru edo lau urtetara Asia ere oso indartsu etorriko dela diote;



G. AZKUE



## DI-DA BATEAN ▶

**Patinatzaile bat?** Chad Hedrick amerikarra; inoiz izan den hobereana.

**Amets bat?** Lehenengo gelditzea Munduko Txapelketa batean. Olinpiar Jokoetan parte hartzea ere oso polita izango litzateke.

**Amesgaizto bat?** Lesio fuerte bat izatea. Egia esan orain arte zortea izan dut horretan.

**Damu bat?** Lehenago ez atera izana kanpora lehiatzerara. Aurten atera naiz gehien eta oso ongi etorri zait.

**Leku bat?** Italia. Patinatze asko gustatu zait, maila izugarri dute han eta instalazioak ere oso onak dira.

**Une bat?** Pasa den asteburuan Munduko Kopan bosgarren gelditu nintzela jakin nuen ueña. Errebelazioa izan zen: elkarriketak... Urte hau oso ona izan da niretzat.

han Munduko Kopa batean 20.000 lagun atera ziren. Behobia-Donostiaren antzeko lasterketa herrikoiak ere antolatzen dituzte, eta herritartu egiten du patinajea.

### Azal itzazu patinajeko modalitate ezberdinak.

Pista, zirkuitoa eta maratoia dira dauden modalitate garrantzitsuenak. Lehen bietan, puntuaketak eta erlojupekoak egiten dira. Maratoia, berriz, herriren batean edo bi herriren artean egiten da; atletismo bezala 42 kilometro. Europako edo munduko txapelketa batera joatean, bost edo sei proba izaten dira pista eta ondoren maratoia korritu behar da. Munduko kopan, ordea, proba guztiak dira maratoiak, 11 bat urtean. Pasa den asteburuan izan nintzen Nizako 5. proban eta 5. postua lortu nuen. Orain kanpoko talde bat dabil nire atzetik.

### Zer erantzungo diezu?

Animatuko nintzateke. Gainera, ez dugu hara joan beharrik, zure herrian egin ditzakezu entrenamenduak. Hori bai, suhiltzaile lanarekin jarraitzen saiatuko nintzateke.

### Nahi al zenuke patinajea futbolaren parean ikusi?

Ez litzaidake hori gustatuko. Laguntza gehiago behar ditu-

gu, baina telebista gainean izatea... Hori ez.

### Laguntzak aipatu dituzu.

Laguntza gutxi ditugu. Une honetan, Espainiako bost onenen artean egonda, Eusko Jaurlaritzaren laguntza bakarrik dut. Ongi dago, baina gehiago behar genuke, bidaia asko egiten baititugu. Azken hilabete hauetan, esaterako, Nizan, Italian, Suitza, Alemanian... egon naiz. Maila ona edukitzeko Munduko Kopa jokatu behar dut eta probak AEB-etan edo Korean dira. Diru asko behar da hara joan ahal izateko.

### Espainiako Txapelketa irabazi zenuen. Zer duzu gogoan?

Entzungailu moduko batekin joaten gara lasterketetara. Egun horretan beste lasterkari batek eta nik tropeletik alde egin genuen. Karrera erdian, edo esan ziguten hiru minutu atera genituela, irabazteko modua nuen, beraz; hori dut gogoan. Gainerakoan, podium-ean egotea ere zirraragarria da.

### Eta orain zer? Zein da hurrengo pausoa?

Preolimpiko bat jokatu dugu hurrena. COI-koak etorriko dira ikustera, patinajea Olinpiar Jokoetan sartu nahi baitute. Izan ere, aspaldi betetzen ditu patinajeak behar diren eskakizunak.

ekainak 5, igandea  
Villabonako Flemingo aparkalekuan  
11:00etan

Festa:

\*11:00etatik-12:00etara: Denbora taldeak, Zaborrak Bor-Bor antzezlanak aurkeztuko du.

\*12:00etatik-14:00etara: jolas parkea. Jokuak eta ingurumeneko tailerrak.

Musika eta freskagarriak datozen denentzat.

ASTE BERDEAREN  
FESTA 2005



Ernioalde

\*Garapen Iraunkorrerako Departamentua (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta IHOBE (Eusko Jaurlaritza)

\*Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernioalde, Irura, Villabona eta Zizurkilgo udaletxeak

HEZKUNTZA ▶

# Lanerako prestatzen

Erdi eta goi mailako zikloez gain, lanean daudenentzat eta langabetuentzat ere formakuntza eskaintzen dute Tolosaldea Goi Mailako LH Institutuan

## OLAI A ESKITXABEL

**E**torkizunera begira gauzatu nahi duten lanbidea aukeratzeko saiakeran ariko dira asko. Aukeraturako lanbidea gauzatzeko formazioa behar dute eta hori eskuratzeko bidea aukeratu behar dute. Lanbide Heziketa da horietako bat.

Lanbide Heziketak teknikari eta goi mailako teknikariaren titulu ofizialak eskaintzen ditu. Titulazio horrek profesional kualifikatua dela ziurtatzen du; kalitate horren atzetik, berme gisa, «Institutua, irakasleak, ikastegiaren ekipo modernoak, enpresetako praktikaldietan lorturiko esperientzia...» daudela azaldu du Jesus Arregik, Tolosaldea Goi Mailako LH Institutuko zuzendariak.

Ikasgaiak oso praktikokoak izaten dira, gainera: «Erabiltzen ditugun tresnak edozein enpresatan erabiltzen dituztenak dira; eta, askotan, aurrera-tuagoak. Ikasketak amaitu eta aurkituko dituzten tresneria eta teknologia ezagutzen dute Institutuan. Aurrera begira, lantokietan aurkituko dutena aurrez ezagutzen dute, beraz.»

Ziklo guztiak euskaraz ematen dituen goi mailako LH institutu bakarrenetako da, bestalde: «Hori lortuta, hurrengo erronka, euskara lan munduan sartzea da.»

Lanbide Heziketako ikasketen helburuetako bat, ikasleei formazio gaitua ematea da; horretarako, ezinbesteko izaten da enpresekiko harremana. Tolosaldea Goi Mailako LH Institutuak, esaterako, harreman estuak mantentzen ditu, batez ere, eskualdeko enpresekin: «Gure ikasleak enpresetara joaten dira praktikak egitera; hori beharrezkoa izaten da; beste modulu (ikasgai) bat da.



Ziklo formatiboetan, lantegietan topa daitezkeen teknologia, tresneria... erabiltzen dute. INIGO TERRADILLOS

Horretaz gain, enpresak ere baliabide bereziak behar dituztenean guregana jotzen dute. Joan-etorriko harremana mantentzen dugu, beraz, enpresekin», dio Arregik.

Praktikak amaitu eta gutxira lana aurkitzen omen dute gehienek. Portzentaia zikloaren arabera aldatu egiten dira, ordea: «Ziklo industrialetan %100ak lana aurkitzen du; administrazioan edota informatikan, berriz, kopuru jaitxi egiten da.»

Praktiketan daudenean ezetik lana aurkitzen dutenetik bi urteko jarraipena egiten du ikasketxeak, ikasleak lana lortu

duen, lanean gustura dabilen, dituen arazoak... ezagutzeko.

Praktikak atzerrian egiteko aukera ere badute ikasleek. *Leonardo* deritzen programari esker hiru hilabetez Italiako, Ingalaterrako, Poloniako... enpresetan egon daitezke lanean.

### Emakumeen presentzia

Emakume gehienak informatika eta Administrazio zikloan ematen dute izena. Eta goi mailako zikloetan sartzen diren emakumeak batez ere «unibertsitateko ikasketak amaitu eta lanik aurkitu ezean ziklo industrialetera jotzen dutenak

dira lana aurkitzeko segurtasun osoa dutelako», azaldu du Institutuko zuzendariak.

Lanbide Heziketako ikasketak egitea aukeratzeko dutenen kopurua ez da igo, jaiotze-tasa jaisten joan delako; baina portzentaia handituz doazela argitu du Jesus Arregik: «Orain dela urte batzuk, ikasleen %30ak aukeratzeko zituen Lanbide Heziketako ikasketak; egun, berriz, %50ak.»

Lanbide Heziketako zikloetan izena emateko asmoa dutenek asteazkenaren bitartean, ekainaren 8a, izango dute Tolosaldean aurrematrikulazioa egiteko aukera.

### Ere mu zabalagoa

Tolosaldea Goi Mailako LH Institutuan eskaintzen den formakuntza ez da aurretik aipaturako zikloetara mugatzen. Formazioaren alorra eremu zabalean lantzen dute.

Inguruko enpresetako langileei bideraturako formakuntza eskaintzen dute, alde batetik. Urtero, 50 bat ikastaro ematen dituzte eta 400 lagun inguru joaten dira ikasketxera.

Langabetuei zuzendutako formakuntza ere eskaintzen dute: «Urtean bi edo hiru ikastaro ematen dira. Eskaearen arabera aldatzen joaten dira; aurtin, esaterako, web orriak egiten ikasteko ikastaroa eta galdaragintza eman ditugu», azaldu du Arregik.

Amaitzeko, Lanbide Gaitasunaren Egiaztapena aipatu du Arregik: «Titulurik izan ez, baina urte asko lanpostu batean daramatzatenean duten esperientziaren bidez eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak egiaztatzeko titulua lortzea da helburua. Langile horiek dakitena aztertu eta ebaluatzen da eta ziurtapen ofiziala ematen zaie.»

Autoformakuntza lantzeko, bestalde, *Urrats* programa bultzatzen dute: «Urtero proiektu bat aukeratzeko da eta proiektu hori martxan jarri ahal izateko baliabide teknikoak eta ekonomikoak ematen zaizkie proiektua egin dutenei. Autoenplegua bultzatuz, lanpostuak sortzeko beste bide jorratzen dugu.»

Irakasleen etengabeko formakuntza ikasketxearen beste puntu estrategikoenetako bat da Agirreren ustez. Lan taldeetee arteko harremanak, pedagogia eta alor teknikoaren aldetik... ondo prestatzea eta lantzea ezinbestekoa da beraien lana behar bezala betetzeko.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Agenda.** Intereseko informazioa gure webguneko agendan sartzeko eta iragartzeko aukera du edonork. Antolatutako ekitaldiak, bilerak, deialdiak, jaiak... edozeinek sar ditzake bere ebeko ordenagailutik. Oso erraza eta erabilgarria da denentzat.



**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14-A • TOLOSA  
Tel.: 943 650337 Faxa: 943 652938  
e-maila.: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

1007



**1007**  
Iraultza da!  
Bere zain gaude

**1007**

## VILLABONA ▶ GIZARTEA



## Hamaika ekitaldi Behar-Zana elkarteko 59. urteurrenaren jaiak

**N. Lataburu** ▶ Behar-Zana kirol elkarte bere 59. urteurrena ospatzen ari da asteburu honetan. Atzo goizean, besteak beste, eskuzko pilota partidak jokatu zituzten herriko frontoian eskolako gazte-txoek. Arratsaldean, berriz, buruhandi eta erraldoiak izan ziren. Loatzo musika eskolako ikasleek animaturik —argazkian—. On-



doren, joko garbiko partida antolatu zuten. 19:00etan hildako bazkideen aldeko meza izan zen. Gau partean afaria izan zuten, Incansables txarangak ondorengoa alaitu zuelarik. Gaurkoan dianarekin esnatuko dira. 11:30ean errebote partida izango da ikusgai eta asteburua bazkariarekin amaituko dute. **N. LATABURU/I. TERRADILLOS**

## ANOETA ▶ TXIRRINDULARITZA

## Beñat Urain garaile jubenilen proban

Esprinean irabazi zuen 2.19:33ko denboraz; 94 txirrindulari aritu ziren Oiarzabal eta Urkolaren omenezko proban



94 parte-hartzaileak Anoetako itteeraren uanean. **I. TERRADILLOS**

## ERREDAKZIOA

Atzo Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenezko Gipuzkoako jubenil mailako txirrindulari probako XXII. edizioa izan zen, Oriako txirrindulari eskolak antolatuta. Anoetan hasi eta bertan amaituta, guztira 97 kilometroko ibilbidea burutu zuten parte hartu zuten 94 txirrindulariek.

Laxi colchon taldeko Beñat Urainek eskuratu zuen garai-pena, 2.19:33ko denborarekin, esprinean erabakitako proban.

## SAILKAPENAK ▶

## PROBA

Izena	Denbora
1. Beñat Urain	2.19:33
2. Julen Gonzalez	2.19:33
3. Ibai Sanz	2.19.44
4. Ignacio Blanco	2.19.44
5. Jagoba Arberas	2.19.44
6. Hasier Olea	2.19.44

Julen Gonzalez izan zen bigarren, eta Ibai Sanz, 11 segundora, hirugarren. Taldekako saria berriz Caja Ruralek jaso zuen eta mendikoa Caja Ruraleko Julen Gonzalezek.

Uste baino beranduago amaitu zen lasterketa, izan ere Anoetatik abiatu eta Alegiako zubia gurutzatzean Ander Zaldua tolosarrak eroriko larria izan zuen. Txirrindularia Donostiako ospitalera eraman behar izan zuten eta «egonkor» zegoen hango medikuen esanetan erredakzio hau ixterakotan.

## TOLOSA ▶

## Perretxiko eskaintza zabala atzoko azokan

Ziza eta eta ondoak ez ezik, senderuela, ziza horia eta kuletroa izan ziren

## PABLO ALBERDI

Euria eta tenperatura freskoa izan ziren atzo nagusi azokan. Bisitari askori bueltatxo egitera bultzatu zion eguraldiak, eta bizi izan genuen giroa ez zen kaskarra izan.

Eskaintza ere polita izan zen, eta batez ere perretxikoen arloan, berrikuntzak ere ikusi genituen. Ziza eta ondoez gain, senderuela, ziza horia eta kuletroa ere izan ziren. Kopurua ere oso zabala zen, baina dirudienez, zizen kopurua, pixkanaka behera dihoia, eta horretan mantenduko da. Prezioak ez ziren asko aldatu ohizko espezieetan; kuletroa 25 eurotan salten zen, ziza horia eta senderuela 20 eurotan.

Berdura plazan ere kalitateko landare zerrenda izan zen. Bai apaingarriko landareen postuetan, nola baraztarako landareen postuetan ere.

## ATZOKO AZOKA ▶

## Berdura plaza merk. gares.

Landareak	1,00	-
Pensamientoa	1,00	-
Surfinia	2,80	-

## Bertakoak

Tomatea	3,00	4,50
Kalabaza	1,50	3,00

## Ekologikoa

Sagarra	2,00	3,00
Tipula	1,75	2,00
Letxuga	1,00	-
Aza	2,50	3,00

## TOLOSALDEA GARATZEN, S.A.

Sozietate honetako Administrazio Kontseiluak bere akzionistak deitzen ditu **2005eko ekainaren 21ean** Adunako Udaltxean (Herriko plaza, 1) egingo den **Ohiko Batzar Orokorrean, arratsaldeko 7etan**, lehen deialdian, eta egun eta toki berean arratsaldeko 8etan, bigarren deialdian. Gai zerrenda:  
1.- Batzarreko lehendakaria, idazkaria eta kontu-hartzaileak izendatzea.  
2.- 2004. urteari dagozkion Gestio Txostena eta Urteko Kontuen azterketa eta onarpena, kasua baltitz.  
3.- Eskariak eta galderak.  
4.- Bilkurako akta irakurtzea eta, egoki baltitz, onartzea.  
Tolosa, 2005eko ekainak 3 Lehendakaria.

## APATTAERREKAKO INDUSTRIGUNEA, S.M.ko

akzionisten **Ohiko Batzar Orokorrean deialdia**. Batzarra Adunako udaltxean egingo da (Herriko Plaza, 1) **2005eko ekainaren 21ean, arratsaldeko 7etan**, lehen deialdian, eta egun eta toki berean arratsaldeko 8etan, bigarren deialdian. Honakoa izango da biltzarreko aztertuko duen gai-zerrenda:  
1.- Batzarreko lehendakaria, idazkaria eta kontu-hartzaileak izendatzea.  
2.- 2004. urteari dagozkion Gestio Txostena eta Urteko Kontuen azterketa eta onarpena, kasua baltitz.  
3.- Eskariak eta galderak.  
4.- Bilkurako akta irakurtzea eta, egoki baltitz, onartzea.  
Tolosa, 2005eko ekainaren 3an. Lehendakaria

## iragarki laburrak ▶

**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzan. Astean 35 ordu. Informa zaitetz. **943 22 46 85.**  
**Suhiltzaileak.** Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. Telefonoa: **943 22 46 85**  
**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 8:00-15:00. Informazioa doan. Telefonoa: **943 33 46 85.**  
**Herri haurtzaindegia.** Honako lanpostu hauek bete behar dituzte: haurtzainak, hezitzaileak. Informazioa doan. **943 22 46 85.**  
**Sukaldeko laguntzaileak, zerbitzariak.** Hurrengo deialdiak: herri erakundeak. Informa zaitetz. **943 22 46 85 telefonoan.**

**Peoiak, ofizioko langileak.** Lanpostu finkoak: igeltseroak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 8etatik 15etara. Informazioa doan. **943 22 46 85.**  
**Laborategia.** Plaza libre: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, eusko jaurlaritza. Informazioa doan. **943 22 46 85.**

TOLOSA ▶ ASTE BERDEA



Tolosa txirrinduan zeharkatuz

Noelia Lataburu ▶ Atzo goizean inauguratu zuten Tolosa zeharkatzen duen bidegorria. Jokin Bildarratz alkateak eta Andoni Imaz kirol zinegotziarekin zuten gazte guztiekin estreinuari. NOELIA LATABURU

TOLOSA ▶ GASTRONOMIA



15 ardo zuri eta 500 lagun

Erredakzioa ▶ Santio bidearen iparraldeko 15 ardo zuri dastatzeko aukera izan zuten atzo eguerdian plaza Berrian bildutako 500 lagunek baino gehiagok. Gure Txokoa elkarteak antolatuta. L.MONTES

TXARAMA ▶ JAIK

# Giro polita atzo, herri jaietan

Goizean hasi eta gauerarte giro herrikoa izan zen nagusi atzo Txaraman

IÑIGO TERRADILLOS

Goizeko suziriarekin hasi zen jaiak atzo Txaraman. Une horretatik aurrera, pixkanaka etxean prestatutako patata tortilak ekartzen joan ziren lehiaketako parte hartzaileak. Hamaiketako ederra egiteko aukera izan zen tortileki eta sagardorekin batera. Epailerek, banan banan guztiak probatu ondoren Jesus Gorostidiri eman zioten lehen saria, hau da, urdaiazpikoa eta bigarrena, baurde txorizoa, Demetri Sarasolarentzat izan zen. Toka txapelketa ere egin zuten goizean, eta aspaldiko argazkiak izan ziren ikusgai.

Arratsaldean, pailazoak izan zen eta ondoren txokolatada. Apustu interesgarria izan zen jarraian ikusgai, heldu ala gazte nor baino nor aritu zirenekoa, alegia. Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsoari eta Saioa eta Alabier trikitilariak alaituriko herri afariarekin amaitu ziren aurtengo jaiak.



Garai bateko argazkiak ikusteko aukera izan zen. I.T.



Patata tortilekin hamaiketako oparoa egin zuten. I.T.

**Kontsu Taberna**  
**OREXA**  
**ASTEBURUKO MENUA**  
**943 68 21 54**

**Titulazio Ofizialak**  
**1. ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA Zikloak**  
SARRERA: D.B.H./ HSAOL BATXILERGOA EDU ANIZKOKOAK

**ceinpro**  
DISEINU ETA KREAZIO-AHALMENEAN  
OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

**DISEINU ETA KREAZIO-AHALMEN saila**

- KREATIBITATE AZTERKETA
- KOLORE, MARRAZKETA ETA OSAKETA
- PUBLIZITATE DISEINUA ETA MARKETING
- IRUDI KORPORATIBOA ETA PUBLIZITATEA
- IKUSMEN KOMUNIKAZIOA

**TEKNOLOGIA BERRIETAKO saila**

- LOGOTIPO DISEINUA
- IRUDIEN TRATAMENDU DIGITALA
- MAKETAGINTZA ETA PRODUKZIO EDITORIALA
- INTERNET, WEB DISEINUA & MULTIMEDIA
- ARGAZKILARITZA DIGITALA

2005-2006 Kartesia

Hiria: Postaketa 97  
20008 DONOSTIA  
· Gipuzkoa ·  
Tel. 943 310873  
Fax 943 310875

**www.ceinpro.es**

Parte-hartzean eta talde-lanean oinarritutako metodologia

**ELHUYAR**  
ANIZKOKO HEZKUNTZA

- Euskara-planak enpresa eta erakundeetan
- Esparruka landutako euskara-planak udalerrietan: lan/mundua, aisialdia, merkataritza...
- Gogoetak, plan estrategikoak eta erakundeentzako antolatutako hobetzeko prozesuak

**www.elhuyar aholkularitza.net**  
**aholkularitza@elhuyar.com**  
Tel. 943 372852 (Usurbil) 94 4668816 (Durango)

TELEFONOAK ▶

- Larrialdiak. ((112))**  
**Osasuna.**
- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Orea. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroako dispen.: 672637
    - ▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**  
**Furgoneta.** California furgoneta salgai. 943 02 74 86.

**ALOKAIRUA**  
**Apartamentua.** Alcosseberren (Castello) apartamentua alokatzen da 2-4 pertsonentzat terraza, pizina, hondartza, aire egokitua eta garajearekin. Deitu 943 65 00 19.

**LANA**  
**Tabernaria.** Tolosaldea. Neska euskalduna behar da taberna batean 4 ordu lan egiteko. Esperientzia duena. Deitu 675 70 11 78.

**Zerbitzaria.** Tolosaldean astebukaeratarako zerbitzaria behar da. Deitu 677 32 99 34.

**Sukaldaria.** Astebukaeratarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

**Etzeko lanak.** Pertsona bat behar da etzeko lanak egiteko. Orduetgia, astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara. 600 euro eta gizarte segurtantza. Erreferentziak gutzit beharrezkoak dira. Interesatuak bidali 240 posta kutxara. 20.400 Tolosa.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko ekainaren 5a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zaintzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Abiztur.** Kultur Astean, Landarbaso abesbatza 12:00etan elizan.  
**Aitzo.** Kirola kalera: 10:00etatik 11:00etara natur ibilaldia; 11:30ean pilota partiduak.  
**Tolosa.** Laskorain Ikastolaren Eguna: 10:30ean bizikleta ibilaldia Usabaldi; 11:30ean jolasak; dantzak; abesbatza; bertso saioa; pilota; bazkaria; lehiaketa; pailazoak; dantzaldia...  
**Tolosa.** Aste Berdea: Uzturrera iguera 9:00etan Santa Klaratik; 9:30ean Izaskundik; 11:00etan Udal Txistulari Bandak eta tronpetak; hamaiketako; 12:30ean pottokak, abereak... Izaskunen.  
**Tolosa.** Plaza Berrian 21:00etan Tolosandblues jaialdian Blues Blaster's.  
**Villabona.** Aste Berdearen barruan Gurea antzoki ondoko aparkalekuan 11:00etan haurrentzako antzerkia, jolasak, tailerrak, musika eta freskagarriak.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Las tortugas tambien vuelan. Leidor zineman 17:00, 19:30 eta 22:30ean. Bihar 19:30ean eta 22:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.  
**Leiza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

**Bihar**  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.  
**Leiza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Ikastolaren eguneko festa

**IBARRA ▶** Uzturpe ikastolak urtero bezala Ikastolaren Eguna egin zuen atzo; egun osoan ekitaldi ugariz gozatzeko aukera izan zuten gazte zein helduek



Herriko plazan jolasean aritu ziren txikiak atzo goizean. I. TERRADILLOS

**ERREDAKZIOA**

**A**tzo ospatu zuten Ikastolaren Eguna Uzturpe. Goizean goizetik hasita, guraso, irakasle nahiz ikasleak elkartu ziren Zumardi Handian triatloia burutzeko. Euriak patinaia proba zapuztu zuen, eta horren ordez hockey-an aritu ziren.  
Herriko plazan bildu ziren eguerdian. Haurrentzako askotariko jolasak prestatu zituzten eta ondoren, helduekin batera, tokan aritu ziren. Pilota parti-

duen finalak ere izan ziren ikusgai.  
Jende ugari bildu zen kiroldegian egin zuten bazkarian. Trikitilariak alaitu zuten bertan giroa. Bazkaldu ostean, ikasleek eskolaz kanpoko ekintzetan landu dutenaren erakustaldia eskaini zuten: musika eskola-koen emanaldia batetik, Alurr dantza eskolako gaztekoen saioa bestetik, eta hockey taldekoen neurketa azkenik. Honela, egun atsegina igaro zuten Uzturpekoek, ikastolaren eguna aitzaki.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Garazi (Aitzo). Gaur 4 urte. Urte askotarako eta muxu goxo bat etxekoan partetik.



**ZORIONAK**  
Katalina Karrera (Tolosa). Egun ona pasa, seme-alaba eta iloba guztien partetik.



**URTE ASKOAN**  
Baietz asmatu zenbat dituzun betetzen. Zergatik ez ditugu txaloka kontatzen? 1,2,3...



**ZORIONAK**  
Juan Kortajarena (Villabona). Muxu handi bat etxekoan partetik. Batez ere Unai, Haritz, Jokin eta Harriren partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri!  
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

**INFORMATIKAKO ZIKLOAK**

- Informatika-sistemen administrazioa (A eta D).
- Informatika-aplikazioen garapena (A eta D).
- Sistema informatikoen ustiatzea.

**ESKEINTZA:**

- 20 urte informatikako profesionalak hezituz.
- Informatikako Ingeniariak irakatsia.
- Azken belaunaldiko ekipoa eta programak.

**“Zure helburua lan egitea bada...”**

**BENETAKO PROFESIONALAK**

**MATRIKULA ZAITEZ!**

**Cebanc-Cdea**

**Ekainean**

**30 Egun paregabe**

Orain, ekainean, egunero eskaintza ezin hobea izango duzu. Astebetean bakarrik lor dezakezu... edo plazak bukatu bitartean.

**EKAINEAN EZ DIRA 26 EGUN BAINO GERATZEN**

**EKAINAREN 6TIK, ASTELEHENETIK, aurrera 7 egunetan bakarrik**

**SALOU - PORTAVENTURA 259€**  
43.094 pta  
SALOU-LA PINEDA. 07/2014 07/15ra. 8 egun - 7 gau. Rueta Best Hotelak\*\*\*. Mantenu osoa. BI EGUNEZ SAGIDAN PORTAVENTURATUTURA KONAZ GERO, SAGIDAREN OGAN, LEHEN HAURRA ODHAINEN, BIGARREN HAURRAK %50ED DESKONTATIA (Portaventura: haurren prezioak bostaitatu)

**ESKANDINAVIA LILURAGARRIA 1.357€**  
225.796 pta  
FIORDOS-OSLO. 06/04/14 09/11/14 (Ez daude barne: 07/23, 07/30, 07/30, 08/06, 08/17 eta 08/13). 8 egun - 7 gau. Hagekina bitook. Hotelak\*\*\*\*. Dena barne.

**EROSKI bidaiak**

**merezi duzu**

www.viajeroski.es